



1. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2007ko urtarrilaren 22an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako Hiria eta udaletxea.

DATA: Bi mila eta zazpiko urtarrilaren hogeita bian

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro andrea
Jesús M^a García Garde jauna eta
Fco. Javier Pombo González jauna

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Alkate andrea.

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta jauna behin-behineko idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Lucia Querido Noceti zinegotziak bere ezin etorria justifikatzen du osasun arazoak ditu eta.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehenakariak, 8:20tan, bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako honako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko Batzarretako aktak irakurri eta onartzea, 12 eta 13 zk. dutenak, 06-12-4 eta 06-12-15ekoak hurrunez hurren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez erabaki du goiburuan izendatutako aktak onartzea eta dagokion Akten Liburuan transkribatzea, 12. zk.ko aktan ondorengo aldaketa egin ondoren:

Zortzigarren puntuan, Koxtaperi eman beharreko aparteko diru-laguntzari buruzkoan, erabakiari buruzko azalpena bere horretan utziko da, xedapenak honela jasoko dira:

“LEHENENGOA.- Aparteko diru-laguntza ematea Koxtape A.E.ri

- 1017,34 euroko zenbatekoko, 2006ko urtarrila eta azaroa bitartean kontsumitutako argindarraren fakturei dagokiena. Fakturak Udalaren esku daude.
- Zehaztu gabeko zenbatekoarekin, baina gehienez ere 128,19 euroko dirulaguntza, 2006ko abenduan kontsumituko den argindarrarengatik.

BIGARRENA.- Diru-laguntza A-1214/06 baimendutik egingo da eta 06 481 10 01 kontu-sailetik, erakunde onuradunak abenduko faktura ekartzen duenean. Faktura hori aurkezteko azken eguna 2007ko otsailaren 1a da.”

2.- 1. obra ziurtagiria: "Errotetako mendi-hegaleko egonkortzeko, Gaztelutxora igotzeko errepidean".

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien adostasunez, ziurtagiri hau onartzea erabaki du:

Zk.: 1

Obra: " Errotetako mendi-hegaleko egonkortzeko, Gaztelutxora igotzeko errepidean"

TECNICOS EN ESTABILIZACIONES E INYECCIONES, S.A. (TESINSA) enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: IKERLUR, S.L. GEOLOGIA Y GEOTECNIA

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMABOST MIL ZAZPIEHUN ETA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (55.712,76 euro).

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko 632/06 xedatutik ordainduko da.

3.- "Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal-bulegoak egokitzeko proiektua" obraren 3. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien adostasunez, ziurtagiri hau onartzea erabaki du:

Zk.: 3

Obra: "Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal-bulegoak egokitzeko proiektua".

GUIRES S.A. enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: JON CHAVARRI SARASUA.

Zenbatekoa: EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA BEDERATZI EHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (129.990,74 euros).

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko 651/06 xedatutik ordainduko da.

4.- Bordalaborda, 2 proiektuaren urbanizazioaren behin betiko onarpena (portuko eremuko gunea).

Pasaiako Udalak, 2006ko ekainaren 19an, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Bordalaborda 2ko Eremurako hirigintza-proiektuari; proiektua Oarsoaldeako Industrialdea S.A. enpresak aurkeztu zuen, Ingenieria Asmatu eta Estudio de arquitectura Chávarri y Asociados enpresek idatzi zuten, eta Bide, ubide eta portuetako ingeniari-eskolaren ikus-onetsia (2003ko abenduaren 4koa) eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo ofizialaren ikus-onetsia (2003ko abenduaren 29koa) ditu.

Legeak agintzen dituen argitalpenak ekainaren 28an egin ziren eta emandako hamabost eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Udal arkitektoak 2006ko abenduaren 4an aldeko txostena egin zuen.

Bordalaborda 2 HIEan portuko zerbitzugunearen ordenaziorako aurrerapen-dokumentuaren behin betiko onarpena 2006ko maiatzaren 17an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eraginkorra izateko, eta indarrean sartzeko, eta, besteak beste, honako hau xedatzen du: *“Antolamenduaren Aurrerapen agiri honetan dauden antolamendu aurreikuspenen exekuzio zuzena begiesten da, aurretiaz dagokion Urbanizazio-proiektua idatzi ondoren.”*

2006ko uztailaren 27an, Pasaiako Alkateak eta Juan Carlos Merino González eta Angel Aramendi Arrieta jaunek —Oarsoaldeako Industrialdea S.A. enpresako presidentea eta gerentea, hurrenez hurren—, Navalaldea —Arau Subsidiarioetako Bordalaborda eremua— garatzeko hirigintza-hitzarmena sinatu zuten; dokumentuan, udalerriri egingo zitzaizkion lagapenak eta urbanizazio-kargen onarpena zehaztu ziren. Hirigintza-jardueraren ondorioz sortutako plusbalioetan Komunitateak duen parte-hartzearen printzipio konstituzionala bermatzearen, portuko jabari publikoaren emakidadunak eta jardueraren sustatzaileak Pasaiako Udalarri 246.414,96 euro ordainduko dizkio.



Oarsoaldeko Industrialdea SA enpresak oraindik ez du egin Udalari dagokion aprobetxamenduaren ordainketa.

Bestaldetik, Hitzarmenaren hirugarren estipulazioak honakoa xedatzen du: *“Oarsoaldeko Industrialdea S.A sozietateak, horrez gain, ordenazio- eta urbanizazio-instrumentuak idaztearen eta tramitatzearen gastu eta tasak ere ordaindu beharko ditu.”*

Honako hauek hartu ditugu kontuan: EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren 2. Puntua; eta Etxebizitzaren Arloko Presako Neurriak eta Hirigintza Plangintzako zein Kudeaketako Tresnak Izapidetzeko Neurriak zehazteari buruzko 17/1994 Legearen 8. Artikulua.

Pasaia Alkateak, 2003ko ekainaren 19an emandako ebazpenaren bidez, Gobernu Batzarraren gain utzi zuen, besteak beste, urbanizazio-proiektuei behin betiko onarpena ematea.

Hori guztia dela eta Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onarpena EZ ematea Bortalaborda 2 Eremurako hirigintza-proiektuari; izan ere, Hirigintza-jardueraren ondorioz sortutako plusbalioetan Komunitateak duen parte-hartzearen printzipio konstituzionala bermatzearen, portuko jabari publikoaren emakidadunak eta jardueraren sustatzaileak EZ DIO Pasaia Udalari 246.414,96 euro ordaindu.

BIGARRENA.- Eskatzea Oarsoaldeko Industrialdea, S.A.ri dagokion zenbatekoa ordaintzeko.

5.- Obra-baimena, Eskalantegi, 5.

Gai hau mahai gainean geratzen da ikerketa sakonaren zain.

6.- Eskola kontseiluko partaideei 2006ko 2. seihilabeteko dirulaguntza.

2006ko abenduaren 21eko Zinegotzi-Delegeatuaren proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzaordeak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ondoren aipatzen diren Ikastetxeei 2006ko bigarren seihileko diru-laguntza banatzea onzat ematea:

- KARMENGO AMA H.I.....1.885,80 Euro
- KARMENGOTARRAK. GURASO

ELKARTEA.....378,98 Euro
➤ PASAIA-LEZO LIZEOA.....2.187,88 Euro

GUZTIRA.....4.452,66 Euro

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko 05-481-422-00-01 partidatik eta A-1681/06 Baimendutik ordainduko da.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin..

7.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa, Manuel Millet Vareirok jarria.

MANUEL MILLET VAREIRO jaunak erreklamazioa aurkeztu zuen C1529 matrikuladun ziklomotoreak kalteak izan zituelako, 2005eko Trintxerpeko jaietan Euskadi Etorbidea kalean, JOKER izeneko establezimenduaren pareko parkinean aparkatuta zegoela mugitu zutenean.

Aurrekariak ikusi eta Zerbitzuetako departamentuak eta udaltzaingoak igorritako txostenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ezestea MANUEL MILLETA VAREIRO jaunak aurkeztutako erreklamazioa, ez dagoelako garbi kalteak udaleko zerbitzuek egindakoak direnik. Aitzitik, ditugun datuen arabera ondorioztatzen da Millet jaunaren motorrak dituen kalteak ibilgailuen udal gordailura erretiratu aurretik egindakoak direla.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

B) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioa, Maria Edita Martin Albak jarria.

MARIA EDITA MARTIN ALBA andreak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu zuen SS-6427-AN matrikuladun ibilgailuak aire girotuaren uhalean kalteak izan zituelako, 2006ko uztailaren 14an Lezo-Bide kalean zirkulaziorako bi erreien artean zegoen zuloan ezkerreko aurreko gurpila sartu zuenean. Kalteek 184,34 euroko balioa dute.



Udaltzaingoak eta Zerbitzu, Sare eta Mantentze Lanetarako departamentuen txostenak aztertuta Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho bateko adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- EZESTE, MARIA EDITA MARTIN ALBA andreak aurkeztutako erreklamazioa, ez delako egiaztatu izandako kalteak ezkerreko aurreko gurpila bideko zulo batean sartzeak eragindakoak direnik.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

C) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioa, Maria Aranzazu Abalia Perezek jarria.

MARIA ARANZAZU ABALIA PEREZ andreak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu zuen 2005eko apirilaren 27an kalteak izan zituelako, Gure Zumardian (lehengo Azokaren ondoan) galtzadarri batzuekin estropuz egin eta erortzean.

Zerbitzuetako departamentuak igorritako txostena aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ezestea MARIA ARANZAZU ABALIA PEREZ andreak aurkeztutako erreklamazioa, ustez estropezu egitea eragin zioten baldosak ondo jarrita daudelako, eta haien artean egon daitezkeen hutsuneek ez diote ematen ondare-erantzukizunik udal honi.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

- Bozketaren emaitza ondorengoa da: Alkate andrea abstenitu egin da, beste zinegotziek aldeko botoa eman dute.
- Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

8.- "Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal-bulegoak egokitzeko proiektua" obraren 4. ziurtagiria.



Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien adostasunez, ziurtagiri hau onartzea erabaki du:

Zk.: 4

Obra: "Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal-bulegoak egokitzeko proiektua".

GUIRES S.A. enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: JON CHAVARRI SARASUA.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO (73.792,00 euro).

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko 651/06 xedatutik ordainduko da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9:00etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.